



SIDRA NATURAL DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO SAGARDO NATURALA



SagardoNat 11

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea
Asociación de Sidra Natural de Gipuzkoa

2012ko apirila



**Bukatutako
sagardoak
aurtengo txotx denboraldian**

6 La Asociación
ya ha puesto en marcha
el proyecto "HiruB".

8 Arantxa Eguzkiza
"Elkartearen norabidea izango den proiektua eginda,
gure erantzunkizuna zen martxan jartzea".

SagardoNat 11

- 3 XXVI. Sagardo Eguna
Euriak ez zuen Sagardo Eguna gelditu
- 4 Bukatutako sagardoak aurten
Sagardo salmenta internet bidez
Gipuzkoako Foru Aldundiko Txapelketa
- 6 La asociación ya ha puesto en marcha
el proyecto HiruB
- 8 Arantxa Eguzkiza
“Elkartearen norabidea izango den
HiruB proiektua garatzea lortu ondoren,
gure erantzukizuna zen martxan jartzea”
- 13 Conexiones poco conocidas y
visión vasca dela manzana
Pascal Michelena Paliargues
- 16 INFO-DEBATE
¿Qué es una “marca de calidad”?
Valen Santos
- 19 Turismoa
Sagardotegietan bisita gidatuak
Visitas guiadas a sidrerías
- 20 Historiaren hariari tiraka
Edari kuttuna foruetan
Urko Apaolaza



Argazkiak: Nagore Legarreta



ELIKAGAI ETA NEKAZARITZARAKO ZERBITZU TEKNIKOAK
LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARAKO FORMAKUNTZA

FORMAZIOA / PRESTAKUNTZA
LABORATEGIA
AHOLKULARITZA
LAGUNTZEN GESTIOA

Gozane Eralkina - Olaeta Auzoa, 6 - 20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa)

Ultima PTC eralkina - Garagaltza Auzoa, 51 - 20560 OÑATI (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 53 33 03 | Fax: 943 03 88 32 | Emaila: elkolab@elkolab.com | Web: www.elkolab.com

Euriak ez zuen Sagardo Eguna gelditu

XXVI. Sagardo Egunean ezin esango da eguraldiak lagundu zuenik, baina urteroko moduan giroak bai. Euriak euri jende asko inguratu zen irailaren 3an Kostituzio Plazara eta giro ezin hobean dastatu ahal izan zituzten 40 sagardotegitako sagardoak. Eguerdi aldean eman zitzaion hasiera festari urteroko moduan, arkupeak jendez gainezka zirela. Atertu ahala betetzen joan zen Konstituzio Plaza, sagardozaleak ez baitu galdu nahi urteroko zita, Gipuzkoako sagardorik gehienak sagardogileek berek zerbitzatuta dastatzeko aukera.

garaian garaikoa



Argazkia: Nagore Legarreta

JOSE JOAKIN OTAÑO ETA JUAN JOXE ABURUZA OMENDUAK

Astigarragako Petritegi sagardotegiko Jose Joakin Otaño Goikoe-txea eta Adunako Aburuza sagardotegiko Juan Joxe Aburuza Otegi omendu zituen Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek Sagardo Egunean eta momentu hunkigarria izan zen Konstituzio-ko plazako oholtzakoa, Ainara Otaño eta Ibon Aburuza juntakideak izan baitziren Jose Joakin eta Juan Joxeri eta beren emazte Miren Izagirre eta Arantxa Irizarri Elkarteko pinak jarri eta loreak eman zizkienak. Ondorenean, aureskua eta bertsoak eskaini zizkieten eta Konstituzio Plazan zegoen jendearen txalo zaparrada. Sebastian Lizasok eta Andoni Egañak eman zioten omenaldiari errematea, aspalditik ezagutzen dituzten bi sagardogileak zirikatuz.

Urteroko moduan festari bukaera Gaztelubide eta Euskal Billera elkarteetan eman zitzairen, bazkaritan.

ORDIZIAKO SAGARDO EGUNA, INDAR HARTZEN

Azken bi urteetan, Donostiako Sagardo Eguna ez ezik, Ordiziako Sagardo Eguna ere antolatzen du Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek eta poliki-poliki indar hartzen ari da. 2011n irailaren 10ean izan zen Sagardo Eguna Ordiziako plazan eta bertan 12 sagardotegietako sagardoa izan zen aukeran, eta Donostian bezalaxe giro ezin hobea. ■



Argazkiak: Nagore Legarreta





Bukatutako sagardo asko aurtengo txotx denboraldian

2011ko uztak eraginda, sagardoak nahiko aurrera etorri dira aurtengo orokorrean eta horren ondorioz, sagardo borobilduak dastatzeko aukera dago aurtengo txotx denboraldian. Sagar uztia aurreko urteetan baino aurrerago etorri da orokorrean eta sagardoek ere bide hori jarraitu dute.

Hala ere, bi parte nagusi izan ditu 2011ko sagar uztia horrek: lehenengoa, aurreratu xamarra etorri zena, eta azken burukoa, urteroko epeak errespetatuz etorri dena. Beraz, aukera guztiak daude upeltegietan, eta horrek garrantzia handia du 2012an botilaratuko den sagardoari begira.

KOSTALDEAN, SAGAR URTE POLITA

2011koa ezin esango da sagar urte oso ona izan denik Gipuzkoan, baina kostaldean sagar dezente izan da. Elkarteko sagardotegiek produkzioaren %35 egin dute Gipuzkoako sagarrarekin, urte on batean baino gutxiago. Izan ere, Goierri aldean sagar gutxi izan da 2011n. Sagarrak urte biz behin emateko duen joera eta aurtengo negua nolakoa joan den ikusita, 2012a prest dago sagar urte on bat izateko, hemen-dik aurrera eguraldiak laguntzen badu.



Argazkia: Nagore Legarreta

www.sagardo.com
www.sidranatural.com

Sagardo salmenta internet bidez

Sagardoa internet bidez erosi nahi duenak aukera paregabea du hemendik aurrera www.sagardo.com eta www.sidranatural.com helbideetan.

Gipuzkoako sagardogileen Elkartek on-line salmentarako web orria egin berri du, Merkatu enpresaren eskutik. Erraminta honekin, kontsumitzaileak 48 orduko epean etxean izango du nahi duen sagardoa, eta kaxa berean sagardo desberdinak hartu ahal izateko aukera ere izango du. Merkatuaren eskaeretara egokitzeko pauso bat gehiago da proiektu berri hau, kontsumitzailearentzat oso baliagarria izango dena.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren sagardo txapelketa

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen Sagardo Txapelketarako izen ematea zabalik izan da, apirilaren 16a eguerdiko 2ak arte. Bertan Gipuzkoako sagardotegiek hartu lezakete parte eta sailkatze probak eta finala egingo dira. Finala ekainaren 2an jokatu da Donostiako Gastronomiako Euskal Anaiartean, urteroko ohiturari segiz.

Iaz, Astigarragako Alorrenea sagardotegia irabazi zuen txapelketa eta herri bereko Gartziategi sagardotegia geratu zen bigarren postuan. Hirugarren postuan, berriz, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko bazkide den Urnietako Oianume sagardotegia geratu zen. Guztira 34 parte hartzaile izan ziren, Gipuzkoako sagardotegien erdia, gutxi gora behera.



Argazkia: Nagore Legarreta

Urnietako Oianume Sagardotegia hirugarren gelditu zen iaz.

Sagardotegietan Teknologi berrien kudeaketa



- Web orrien diseinu eta mantenimendua, eta Interneten enpresaren kokapen pertsonalizatua.

- Merkataritza elektronikoen plataformen diseinua eta martxan ipinketa. (e- commerce).

- Kupela Software-ak, sagardo ekoizpenaren prozesu eta fase bakoitza zein guztiak kudeatzen eta zuzentzen uzten du.

*"Sagardorik onena
kudeatzen laguntzen duten
zerbitzu informatikoak"*

www.pclanak.com

IRTENBIDE INFORMATIKOAK



SOLUCIONES INFORMÁTICAS

Galizia 18 - 20015 Donostia
T. 943 32 30 39 - F. 943 32 79 95
SAT. 943 100 423
comercial@pclanak.com

PC Lanak



grupocci.net

-en integraturiko konpainia bat da.

La asociación ya ha puesto
en marcha el proyecto

HiruB

El proyecto "HiruB" (Berrikuntza, Beharra, Batera), con un alcance de cuatro años, supone la hoja de ruta a seguir para que nuestros asociados puedan abordar, con mayor confianza y seguridad, los retos actuales y futuros del sector y, por su parte, para que la Asociación les ayude a ello y les preste más servicios.

Es un proyecto que se soporta en dos pilares. Por un lado, el proyecto "HiruB" ha programado una serie de actuaciones consideradas idóneas para mejorar en competitividad, tanto individual como colectivamente. Se trata de trabajar para consolidar la actividad de cada sagardogile asociado.

Así, a lo largo del próximo cuatrienio 2012-2015, cofinanciado por las sidrerías, Gobierno Vasco y Diputación Foral de Gipuzkoa principalmente, se pondrán en marcha actuaciones que abarcan diferentes ámbitos de trabajo considerados muy importantes: la innovación, la cooperación, la formación, la calidad y la información.

- Trabajaremos en Innovación, con actuaciones centradas en proyectos de I+D, en asesoramiento en innovación integral (proceso, producto, mercado y organización) a los socios, en aplicar las nuevas tecnologías a nuestros negocios y en plantear nuevas oportunidades de negocio, sobre todo en ocio y turismo.
- En Cooperación, se desarrollarán una serie de actuaciones que vinculan a toda la cadena de valor, muy orientadas al mercado.
- Respecto a la Formación, planteamos una formación más innovadora, en cuanto a temas a tratar y en cuanto a formato de curso, que nos permita adquirir más y mejores competencias, que nos

haga entender mejor nuestro entorno y aplicarlo a la gestión de la empresa.

- En cuanto a la Calidad, desde la Asociación seguiremos promoviendo y trabajando en la Calidad Total (procesos, producto, servicios, gestión, etc...), porque entendemos que esta estrategia es una de las más importantes a la hora de consolidar la actividad de cualquier empresa y, por tanto, de nuestras sidrerías.
- Finalmente, pondremos en marcha medidas que mejoren nuestra capacidad de reflexión y decisión, con acciones que giran en torno a un conocimiento más exhaustivo de la operativa de los mercados en los que vendemos nuestras sidras y nuestros servicios y en el manejo de información que nos resulte útil para gestionar bien nuestro negocio.



Argazkia: Nagore Legarreta



Sagardotegietarako zerbitzuak neurrira

- Ikastaroak.
- Diru-laguntzen kudeaketa (proiektuetarako laguntza ekonomikoak).
- Kalitate, Berrikuntza eta Lehiakortasun aholkularitza.
- Marketing eta teknologia berrietan aholkularitza eraginkorra.
- Sagardotegietarako erreferentziazko zerbitzu informatikoak.

Pl. Iribar n°2-3 · Oficina 7 · Igara - 20018 DONOSTIA - T. 943 21 53 64 · cei@grupocei.net



grupocei.net

Por otro lado, como segundo pilar, la Asociación se ha fijado como meta convertirse, para sus socios, en un Centro Integral de Servicios para lo cual se ha reorganizado en torno a cuatro funciones esenciales para alcanzar tal meta, muy orientadas a prestar más servicios al asociado, a atender más al mercado, con un ambicioso Plan de Marketing-comercialización, a potenciar la interlocución con todos los operadores y agentes vinculados a esta actividad y, obviamente, a desarrollar las actuaciones señaladas.


No cabe duda de que el proyecto "HiruB" es ambicioso pero así debe ser para conseguir los objetivos citados al principio.

Por tanto, ya sabemos qué tenemos que hacer, cómo hacerlo y cuándo hacerlo. Y disponemos de recursos suficientes para ello. Además, se ha formado un equipo de trabajo que se encargará de la gestión y puesta en marcha de este proyecto, que trabajará por y para los socios, pero, eso sí, también es preciso que los asociados participen, al fin y al cabo, sólo vosotros quienes sacáis adelante vuestro negocio.

Sólo queda, a partir de ahora, que seamos capaces de entender que hay que dejar de quejarse, de ser pasivo y que es hora de actuar, cada uno en lo suyo pero también todos juntos, ser capaces de andar juntos este camino, de construir un futuro mejor.

SEKTORERAKO OINARRI SENDOAK JARRI NAHIAN

HiruB proiektua 2010-2011 urteetan diseinatu da eta 2012-2015 urteetan garatzen ari da Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak. Sektore-rako nahiz sagardogileen elkarterako ibilbide orria izatea nahi du, berrikuntzan oinarritutako proiektuak ardatz hartuta. 20 proiektutik gora dira HiruB proiektuak biltzen dituenak, lehentasunen arabera datozen lau urteotan martxan jarriko direnak. Proiektu guzti hauek berrikuntza, elkarlana, formazioa, kalitatea eta informazioan oinarrituta daude eta Elkarteko lan taldea izango da martxan jartzeko arduraduna. Baina horrez gain, sektorearen parte hartzea ezinbestekoa da, sagardotegiek beren etxean, nahiz elkarlaneko proiektuetan lan egin beharko baitute, etorkizun egoki baten bila. Datozen aleetan emango ditugu xehetasun gehiago, proiektuak garatu heinean. Izan ere, HiruBren asmoetako bat da SagardoNat aldizkariaren maiztasuna handitzea, sagardo sektorearen berri freskoagoa eman ahal izateko.



Máquina Escanciar de Mesa Pequeña



Máquina Escanciar de Mesa Grande



Cubilete madera de pino

Cubilete madera protegida con fibra



Raqueta Escanciar para 4 vasos



Máquina Escanciar eléctrica con Ruedas



MÁQUINA ELÉCTRICA DE DESCORCHAR
Entera en acero inox.,
Mód. Patented,
conexión enchufe 220V.

El mundo del tapón, S.L.



COEM ASTUR S.L.: Pol. Proni, C/ A NI-9 · 33199 MERES (Siero)

Tlf. 985 985 315 Fax 985 985 389 e-mail: coemastur@terra.es

EUSKAL COEM: Pabellón Industrial, 13, Parcela P-3, Sector A-27 · Tlf./Fax 943 555 607

Txalaka - Araneder · 20115 ASTIGARRAGA

Arantxa Eguzkiza

“Elkartearen norabidea
izango den HiruB
proiektua eginda,
gure erantzukizuna zen
martxan jartzea”



SagardoNat aldizkariak Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek izan dituen Lehendakariei elkarrizketak egin dizkie azken aleetan eta txantxan txandan gaur egun kargu horretan dagoen Arantxa Eguzkiza Beobiderengana iritsi da. Hernaniko Iparragirre sagardotegiko arduraduna da Eguzkiza, ume umetatik sagardotegia ezagutu duena. Iparragirre sagardotegiko hirugarren generazioa da izan ere gaur egun sagardotegia daramana, sagardoari lotutako historia luze baten lekuko. Horrez gain, Elkarteko lehendakari izan da 2008-2011 urteetan, eta datozen lau urteotan karguan jarraituko du, ia zuzendaritza berdinarekin, abenduaren 16ko batzarrak aho batez onartuta.

Lehenengoz eta behin etxeari buruzko galdera batzuk. Noiz sortu zen Iparragirre sagardotegia?

Geuk ere ez dakigu, Antonio Beobide gure aitona erosi baitzuen Iparragirre, bera bertan maizter zela. Ordura arte beti maizterrak bizi eta landu izan zituzten ondoko lur sailak, XVII mendetik aurrera behitzat. Gure familiak beti ezagutu du sagardotegia bertan.

Beraz, inguruan sagardotegi gutxi ziren garaiak ezagutu dituzue, sektorearen igoera eta aldaketak.

Bai hala da. Ni gaztetxo nintzenean gure bailaran bi sagardotegi besterik ez geunden: ez etxerako sagardoa egiten zutenak; kanpora saltzeko, nahiz txotxerako egiten genuenak. Txotxaren igoerak ekarri zuen sagardotegien ugaritzea.

“2008an zuzendaritzari heldu genionean garbi ikusi genuen Elkartek behar zuela plan zuzentzaile bat, gaur egun esan ohi den ibilbide orri bat”.

DELLA TOFFOLA
Iberica s.a.

Tel. 941 44 04 20 • 609 42 86 22



Sagardogile baten etengabeko borroka da zein sagardo egin erabakitzea, bideak zehaztea eta abar. Iparragirren zer bilatu nahiko zenukete?

Gure sagardoa egiteko nortasuna eta modua bezeroen gozatzearekin uztartzea. Modu eta nortasun horretan ezinbestekoak dira gauzak ahalik eta ondoen egitea, sagastitik hasita: Iparragirren sagatiak ekologikoak dira, gure inguruarekiko eta bertakoaren aldeko konpromisoa dira gure bi oinarri. Horrez gain, sagardoaren ritmo bera ere errespetatzea, garrantzitsua dela pentsatzen dugu, produktu naturala eta bizia den neurrian. Azkenik gure etxera bai txotxean edo sagardoa erostera datozenei ahalik eta zerbitzurik hoberena ematea ere bilatzen dugu, eta bide horretan hasi gara kata eta bisita gidatuak eskaintzen.

Sagardotegiko arduradun ez ezik Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakari ere izan zara azken 4 urteotan. Lehen nahikoa lan ez eta nola esaten zaio baietz horrelako erronka bati?

Elkarteko lehendakari kargua hartu baino urte erdi lehenago hala izango nintzela esan balidate ez nukeen sinistuko. Baina gauzak horrela etortzen dira eta taldean heldu genion erronkari. Aurreko zuzendaritzak eskatu zigun Elkarteari heldu geniezaion eta hausnartu ondoren baietz erabaki nuen nik eta zuzendaritzara sartu ziren beste 6 kideek, azken batean hau ziklikoa baita eta norbaitek egin behar baitu lan hori.

Lehen 4 urteetako balorazioa egiteko eskatuko banizu.

Ezin ukatuko dut lau urte lanpetu eta gogorrak izan direnik eta hori Elkartekide guztiek badakite. Sartu ginenean, Elkartean egoera nahasia topatu genuen oso, zenbaitek ez zion urte luzetarako bizitzarik ere ematen eta jarraitu beharreko ibilbidea ere ez zegoen oso garbi. Egia da egora horretan situatzen kostatzen zitzagula, baina poliki-poliki bide bat hartu dugu eta bere fruituak ematen hasi da. Eta gogoratu nahi nuke Elkartea bideratzeko ahalegin horretan Jokin zenak zuzendaritza guztiarekin egindako lana. Inork uste ez zuela utzi gintuen, baina berak egindako guztia hor dago.

Esan izan duzu Elkartek plan estrategiko edo zuzentzaile bat behar zuela aurrera nondik egin jakiteko. HiruB proiektua martxan da dagoeneko.

Bai garbi dago. 2008an zuzendaritzari heldu genionean garbi ikusi genuen Elkartek behar zuela plan zuzentzaile bat, gaur egun esan ohi den ibilbide orri bat, nora jo zehaztuko zuena. Hortik sortu da HiruB plana, Berrikuntza Plan bat ere badena, Elkartea eta

elkartekidearentzat proiektu berritzaileak proposatzen dituelako. Hiru B du izena, Berrikuntza, Beharra eta Batera. Izenak berak garbi dio zein filosofia duen planak. 2010-2011 urteetan proiektua garatu dugu Valen Santos aholkulariaren eskutik eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta, eta finantziabidea bilatzen aritu gara 2012-2015 urteetan martxan jartzeko. Finantziabidea lortu ahala plana martxan jartzen ari gara orain, proiektuetan lehentasunak markatuta.

“Gu ahalegintzen ari gara jendearentzako interesgarriak izan litezkeen erreminta eta proiektuak detektatu, finantziabidea bilatu eta aukeran jartzen”.

Nolako proiektuak biltzen ditu HiruB planak?

HiruBk proposatzen ditu zenbait proiektu Elkartekideentzat, baina Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteari ere izaera berri bat eman nahi dio eta zerbitzuak eskaintzeko gune bihurtu. Beraz, planteatzen diren gauza asko lehenetik egiten direnak dira, baina gaur egungo beharretara egokituak; eta beste zenbait proiektu erabat berriak dira guretzat. Hala ere, guzti hau azaltzeko jardunaldi ireki bat egiteko asmoa dugu, HiruB proiektua garatzen hasi ginenean, 2010eko abenduan, Donostiako Urkiola sagardotegian egin genuen moduan. Guztira hogeitaz proiektutik gora dira lau urteotan martxan jarri nahi direnak, lehentasunak markatuta. Horietako batzuk dagoeneko martxan daude edo eginda ere bai, sagardoa internet bidez saltzeko web orria adibidez, www.sagardo.com eta www.sidranatural.com helbideetan; edo Eusko Label sagardoa, 2011koa bigarren uztia izan duena. Turismoarena da buru belarri lanean ari garen beste bide bat, hor ere sagardogileentzat aukerak jarri nahi baititugu etorkizunari ondo erantzun ahal izateko. Gure ikuspuntutik Elkartearen lana da proiektu guztiak martxan jarri eta Elkartekidea informatzea, eta ahal den neurrian Elkartetik kudeatzea, baina sagardotegi bakoitzak ikusi behar du gero sartu edo ez, bere beharren arabera.

Lehendakari izaten jarraitzeko erabakia hartu zenuenean, zuzendaritza guztiak bezalaxe, hasitako lana bukatu beharra azpimarratu zenuten.

Hala da. Elkartearen norabidea izango den proiektua garatzea lortu ondoren, uste dugu gure erantzukizuna zela martxan jartzea. Eta neurri batean horregatik ani-



Hemos reducido a uno los 4 pasos que todo alimento debe cumplir:
Servicio de asesoramiento integral.

Porque nos preocupa la salud del consumidor y la de su negocio.





GIPUZKOAKO
SAGARDOGILEEN ELKARTEA



TOLARE
SAGARDOTEGIA



**Betiko
sagardoa**



ELKARTEKO SAGARDOTEGIAK:

ABALTZISKETA

ZALBIDE: 943 65 21 76

ADUNA

ABURUZA: 943 69 24 52

ZABALA: 943 69 07 74

AIA

IZETA: 943 13 16 93

SATXOTA: 943 83 57 38

ALTZAGA

OLAGI: 943 88 77 26

ASTIGARRAGA

ARTOLA: 637 035 679

ASTARBE: 943 55 15 27

BEREZIARTUA: 943 55 57 98

ETXEBERRIA: 943 55 56 97

IRIGOIEN-HERRERO: 943 55 03 33

LARRARTE: 943 55 56 47 / 679123892

LIZEAGA: 943 46 82 90

MENDIZABAL: 943 55 57 47

OIARBIDE: 943 55 31 99

PETRITTEGI: 943 45 71 88

REZOLA: 943 55 27 20

SARASOLA: 943 55 57 46

ATAUN

URBITARTE: 943 18 01 19

AZPEITIA

AÑOTA: 943 81 20 92

DONOSTIA

ARAETA: 943 36 20 49

ASTIAZARAN: 943 36 12 29

BARKAIZTEGI: 943 45 13 04

CALONGE: 943 21 32 51

URKIOLA: 943 21 01 68

HERNANI

AKARREGI: 943 33 07 13

ALBERRO: 943 55 00 19

ELORRABI: 943 33 69 90

IPARRAGIRRE: 943 55 03 28

ITXAS-BURU: 943 55 68 79

LARRE-GAIN: 943 55 58 46

OTSUA-ENE: 943 55 68 94

RUFINO: 943 55 27 39

IRUN

OLA: 943 62 31 30

LASARTE - ORIA

OTEGI: 943 36 50 29

LEGORRETA

AULIA: 943 80 60 66

OIARTZUN

BALEIO: 943 49 13 40

ORDO-ZELAI: 943 49 16 86

ORERETA

EGI-LUZE: 943 52 39 05

URNIETA

ALTUNA: 943 55 49 17

ELUTXETA: 943 55 69 81

EULA: 943 55 27 44

OIANUME: 943 55 66 83

SETIEN: 943 55 10 14

USURBIL

AGINAGA: 943 36 67 10

ARRATZAIN: 943 36 66 63

SAIZAR: 943 36 45 97

URDAIRA: 943 37 26 91

ZERAIN

OTATZA: 943 80 17 57

OIHARTE: 943 50 10 13

matu gara jarraitzera, ze egia da denbora eta ahalegin asko eskatzen duela gaur egun Elkarteko zuzendaritzan egoteak. Baina elkarizketa hau aprobetxatu nahiko nuke Elkartekideei dei bat egiteko: hemen guztion inplikazioa behar da aurrera egin ahal izateko, jendeak parte hartu behar du proposamenak egiteko orduan, erabakietan eta proiektuetan, bestela zail da sektore indartsu bat egiten. Gu ahalegintzen ari gara jendearentzako interesgarriak izan litezkeen erreminta eta proiektuak detektatu, finantziabidea bilatu eta aukeran jartzen. Baina jendeak parte hartzen ez badu alperrik izango da gero keiztea. Negozioak aurrera eramane ahal izateko zenbait aldaketa eman behar diren garaian gaude, krisiak, gutxi gehiago denoi eragiten baitigu. Eta hori, bakoitzaren lana da.

Iaz, zortzi kidek Elkartea uzteko erabakia hartu zuten.

Bai eta gogorra izan zen. Aurreko zuzendaritzako kideak ziren asko gainera, Elkartea honen azken urteetako martxan lan egin zutenak, baina beren interesak beste Elkartea batean hobeto defendatuak izango zirela pentsatuko zuten eta hor ez dago zer esanik. Guk gure bidea jarraituko dugu, 50 Elkartekide gara gaur egun, Euskal Herriko %80 sagardotegi kopuruan eta %70 produkzioan. Indarra hor dago eta lanerako gogorik eta proiekturik ez zaigu falta.

“50 Elkartekide gara gaur egun, Euskal Herriko %80 sagardotegi kopuruan eta %70 produkzioan.


Indarra hor dago eta lanerako gogorik eta proiekturik ez zaigu falta”.

Bajak aipatzen hasita, Elkartekide berriak ere aipatu beharko dira.

Bai noski, Elkartekide berriak ere izan ditugu azken urteetan eta horrek poz ematen digu. Elkartea honek ateak zabalik ditu kide izan nahi duten Gipuzkoako Sagardotegi guztientzat.

Hasi duzuen lau urteko ibilbidean, zerekin konformatuko zinateke?

Martxan jarri ditugun proiektu guzti horiek aurrera atera eta sendotzearekin. Elkartea honek dagokion lekua aldarrikatzen du, sektoreko parterik handiena biltzen duen neurrian, baina gauzak ondo egiteko erantzukizuna ere badu, sagarra, sagardoa eta sagardotegien alde. Azken boladan eskailera maila bat igo dugula esango nuke, eta lau urteotan beste eskailera maila bat igotzearekin konforme nintzateke. ■



1912 100 2012
URTEBURRINA ANIVERSARIO

Limousin
CARTONAJES



KARTOI ONDULATUAREN FABRIKAZIOA ETA ERALDAKETA
FABRICACIÓN Y TRANSFORMACIÓN DE CARTÓN ONDULADO

Planchas de cartón ondulado

Cajas de cartón ondulado

Cajas troqueladas

Acondicionadores de cartón ondulado

FAND-FOLD de cartón ondulado

Usabal auzoa, 9-Apdo. 17 :: 20400 TOLOSA :: tel.: 943 670 211 / 943 670 267 :: fax: 943 670 378
:: www.limousinbox.com :: cartonajes@limousinbox.com ::

Conexiones poco conocidas y visión vasca de la manzana

Pascal Michelena Paliargues



Argazkiak: Nagore Legarreta



El presente documento no es una respuesta como diría Don Miguel Colmeiro¹ a "... las falsas y ridículas interpretaciones que de nosotros y de lo nuestro suelen hacerse al otro lado de los pirineos..." al cual se puede retocar lo que extraemos de un autor como Jules Desplanque en la pag.8 de su publicación sobre los orígenes de la manzana² "... los habitantes que constituyen una de las razas mas relevantes de Europa hacen grandes cantidades de sidra que llaman Zagardoa... y si nuestros padres no les son deudores del arte de prensar, si lo han sido durante años".

Esos dos autores resumen la situación actual, y es que no nos preocupamos de lo nuestro: es ilustrativo que la CAPV no haya establecido un banco de germoplasma de las variedades de manzana de mesa y sidrera.

La escasez de divulgación de datos conduce a los autores nacionales y extranjeros a transcribir afirmaciones que son contrarias a la realidad, las más recurrentes:

Los *Malus silvestres* son espontáneos en la parte norte; cuando aparece *maillo* en Salamanca la localidad el *maillo*, en Madrid localidad Sestil del *maillo* y en Andalucía, arroyo del *maguillo* y hoyo del *maguillo* en la provincia de Jaén y en Grazalema encontramos el prado del *maguillo*...

En sierra Nevada finca el *maguillo*: en las traducciones de las obras de Duhamel du Monceau realizadas por Gómez Ortega en 1772, en una tesis doctoral sobre los autores franceses del siglo XVIII, la profesora Julia Pinilla Martínez³ anota que Gómez Ortega indica que el *Malus sylvestris* se llama *maguillo* en Sierra Nevada.

Otra afirmación errónea plasmada en la magistral obra de Jacques Jubert⁴, la sidra bibliografía exhaustiva es que el régimen de lluvias hizo que el *Malus sylvestris* se refugiase en las altas montañas del país vasco cuando tenemos una pluviometría de 1700 mm.../año en el aeropuerto de Hondarribia situado a la altura del mar y cantidades aun superiores en la estación de Artikuza. En Epele Okillegi cercanas se tienen medias para el periodo 1961-1999 de 1700 y 2000 mm...

Para reforzar la idea de que la evolución del manzano es autóctono, diferentes autores manifiestan que no pudo venir de África como lo recoge Jules Nanot⁵ y que pone en boca de diferentes autores que hacen remontar el origen de la sidra a los hebreos y poblaciones africanas del contorno del mediterráneo que hubiesen transmitido su conocimiento a los habitantes del norte de España, olvidándose que los árabes fueron uno de los pueblos que comerciaban con Asia, en particular los omeyyades: los que primero llegaron no eran especialmente cultos según recoge Julio Samso⁶.

1. La Botánica y los botánicos de la Península Hispano Lusitana. Estudios bibliográficos y biográficos. 1858 Don Miguel Colmeiro.

2-12. Des origines de la pomme. Alençon.A. Lepage.1882.Desplanques Jules.

3. Las traducciones al español de Duhamel du Monceau 2008. Julia Pinilla Martinez Universitat de Valencia.

4. Le cidre bibliographie exhaustive, Editions de l'Émoi2010. Jacques Jubert.

5. Culture du pommier à cidre .fabrication du cidre et modes divers d utilisation des pommes et des marc.Paris.Librairie agricole de la maison rustique.1887. Jules Nanot.

6. Ciencias de los antiguos en Al andalus. 2006 Julio Samso.



COMO NOS HAN VISTO LOS AUTORES ANTIGUOS, LOS VIAJEROS.

Los autores griegos y latinos han sido objeto de reseñas por los principales pomólogos, por el nos limitaremos a presentar lo referente a Euskal Herria. No entraremos en análisis de los textos antiguos por ser un tema debatido por especialistas que entraña dificultades de traducción, localización de los lugares. El primer autor que mencionaremos es Aimerico Picaud que indica que “la tierra es bárbara... salvo el consuelo de las manzanas, la sidra y la leche⁷”. El único autor, que no se maravilla de las excelencias de la sidra y de las manzanas guipuzcoanas es Tirso de Molina en la *prudencia en la mujer* “manzanos llenos de gruesos ñudos dan mosto insulso⁸”. Esta cita esta extraída de la obra de la Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa escrita por Beatriz Monreal Huegun⁹.

7. Liber sancti Jacobi. Aimerico Picaud.

8-9. Guipuzcoa en escritores y viajeros. Caja de ahorros Provincial de Guipuzcoa 1984 Beatriz Monreal Huegun.

10. Les fruits retrouvés.patrimoine de demain. Histoire et diversité des espèces anciennes du Sud Ouest.

Éditions du Rouergue évelynne Leterme. Jean Marie Lespinasse.

11. Etimologías. San Isidoro de Sevilla. Don Luis Cortes Congora-Biblioteca de autores cristianos Madrid 1951.

